

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariaren ustez, Iruñeko Ganbera Abesbatza "luxuzko bozgorailua" da Nafarroako musikarentzat

Kulturaren Vianako Printzea 2018 Saria musika-elkarte horri emateko ekitaldiaren buru izan da

Larunbata, 2018.eko maiatzak 26

Iruñeko Ganbera Abesbatzak Kulturaren Vianako Printzearen 2018 Saria jaso du, eta Uxue Barkos Nafarroako Lehendakariak Abesbatza "luxuzko bozgorailua" bezala definitu du Nafarroako musikarentzat, Foru Komunitatean egun abesbatza-musikaren tradizio handia izatearen meritu zati bat musika-elkartearena dela esatearekin batera.



Uxue Barkosen eskutik jaso dute saria Anne Miren Troyas eta David Galvezek.

Uxue Barkos izan da gaur goizean Erriberriko Santa Maria la Real elizan Foru Komunitateak kultura-arloan ematen duen sari nagusia entregatzeko ekitaldiaren burua. Halaber, bertan izan dira Gobernuako kideak, agintariak eta Nafarroako Kultura Kontseilaria osatzen dutenak; azken horrek saritutako hautagaitza proposatzen du.

Historian zehar musika-taldea posible egin duten pertsona guztiak zoriondu ditu Lehendakariak. "Sari honen bitartez –adierazi du- 72 urtetan kulturaren balioak espresiorik handienezan sustatzen aritu den taldearen etengabeko ibilbidea saritzen da".

Testuinguru horretan, musikaren sormenerako eta ikerketarako bere babesa nabarmendu du. "Abesbatza, bere izate guztian -jarraitu du Lehendakariak- luxuzko bozgorailua izan da egileentzat eta bereziki Nafarroako sortzaileentzat; hortaz, sustapen-lanak bi norabide izan ditu: batetik, Nafarroan musika-abangoardia sartzea, eta, bestetik, gure Komunitatean egindako sormenik nabarmenena munduan ezagutzera ematea".

Barkosek adierazi du musika-kulturaren sustapena Abesbatzaren identitate-ezaugarrietan dagoela. "Abesbatzaren historian zehar, Iruñeko Ganbera Abesbatzak

ahotsa jarri die konpositoreei, eta abesbatza-musika garatu ahal izan dute musika-genero hori landu ahal izateko kalitate handieneko instrumentua izanaz", berretsi du.

Horrez gain, melodia tradizionalak eta herrikoiak hedatzen egin duen lana azpimarratu du. "Gainera, Nafarroako kultura defendatzeko eta sustatzeko zereginean, Iruñeko Ganbera Abesbatzak euskara beti kontuan izan du, gure kultura-ondarearen funtsezko elementua, eta kontzertu bakoitzean eta guztietan sartu du", gehitu du.

Azkenik, Uxue Barkosek taldeak jasotako sari eta goraipamen ezberdinak aipatu ditu, eta horien inguruan ondorengoa baieztatu du: "kritika hitzik gabe geratzen da literalki esanda, eta hitz enkomiastikoena artista horien emanaldiaren aurrean espresiorik gabe bihurtzen dela esatera iritsi da. Hori guztia, azkenean, gaur saritu nahi dugu hemen, Nafarroan, Iruñeko Ganbera Abesbatzak oraindik ere inoiz ez zuen sari bat jaso-eta".

Sarituen hitzak

Saria jaso ostean, Anne Miren Troyas, Abesbatzako lehendakariak, ondorengoa adierazi du: "ohore handia da gaur Kulturaren Vianako Printzearen 2018 saria jasotzea, are gehiago saria gure herrialdeko erakundeen eskuetatik jasotzea, izan ere, 70 urtetan Nafarroa eta Iruñaren izena mundu guztian zehar zabaltzen egindako lana ez da alferrikakoa izan". "Hasieratik jaso izan ditugun sariez gain, sari honek guratzeko leku berezia izanen du", gehitu du.

David Gálvez, Abesbatzako zuzendari artistikoak aipatu duenez, "Erriberriko gure abeslarietako batek esan ohi duen moduan, nahasita gaude. Nahasita, zorabiatuta, emozionatuta, pozik eta urduri gaude. Guretzako sari hau abesbatzako kide guztiena zein gure jarraitzaileena da". Azkenik, abesbatzan egunez egun lanean diharduten emakume zein gizonezko guztien lana eskertu du, "Iruñeko Ganbera Abesbatzako kide izatea, eremu honetatik haratago doan, aitzindaria eta erreferentea den abesbatza bateko kide izatea da, duen prestigio eta ondarea mantentzeko ardurarekin bat egitea".


Aurretik, Nafarroako konpositorea eta Musikaren 2017ko Sari Nazionala, Teresa Catalán, arduratu da Abesbatzaren *laudatio*a egiteaz, eta azpimarratu du, lorpen guztien gaitetik, konkistarik nagusia izan dela musikaririk onena eskaintzea, "belaunaldiz belaunaldi gozatu ahal izan duguna".

Catalánek agerian utzi du Abesbatzako kide guztien ahalegina, sakrifizioa eta ausardia, musikan perfektzioa bilatzeko. "Zailtasun horiek gaintzea meriturik ezkutukoena da" gehitu du, elkartearen etorkizunean konfiantza erakustearekin batera. "Ziur gaude jaiotzetik duten konpromiso aktiboari esker, ulertzen dutela sari bat ez dela helburu bat, ezta amaiera ere; egiaz esan, oraindik are eta gehiago konprometitzen duen erantzukizuna da —hori posible bada—, bikaintasuna bilatzen jarraitzeko eta artistikoki guztiok emankorra iragartzen dugun etorkizunari begira", amaitu du.

Ekitaldiaren garapena

Ekitaldia 11:00etan hasi da, eta bertan bildu dira sarituak, Nafarroako Gobernuako kontseilariak, Foru Komunitateko agintari nagusiak eta Nafarroako Kultura Kontseiluko kideak. Eguraldiak hala behartuta, ekitaldia Erriberriko Santa Maria la Real elizan gauzatu da.

Programari hasiera emateko, Nafarroako ereserkia, *Erresuma sartzeko Martxa*, interpretatu dute



Nafarroako Orkestra Sinfonikoak eta Iruñeko Ganbera Abesbatzak, Jesús M. Echeverriak zuzenduta, eta, ondoren, Teresa Catalán konpositoreak bere laudatioa azaldu du. Jarraian, Barkos Lehendakariak saria eman die Abesbatzaren lehendakari Ana Troyas Careagari eta David Gálvez Pintado zuzendariari, eta esker-hitzak jaso ditu. Ekitaldiari amaiera emateko, Nafarroako Lehendakariak bere hitzaldia eman du.

Ekitaldian zehar, Abesbatzak berak hiru musika-pieza interpretatu ditu, elkartearen historiaren eta jardueraren eredu. Blas de la Sernaren "Tirana de Trípoli" (Corella 1751-Madril 1861); "Leihorik leiho", Siete Canciones Vascas Fernando Remacharen obrakoa (Tutera 1898-Iruña 1984); eta "Jácara del Fandangullo", Juan Francés Iribarrenena (Zangoza 1699-Málaga 1767).

Saria emateko ekitaldia amaitutakoan, Nafarroako Ardoaren Kofradiak kopa bat eskaini du publikoarentzat oro har irekitako ekitaldian, Errege Jauregiko patioan. Arratsaldean, eraikina ezagutzeko ate irekien jardunaldia eta doako bisita gidatuak aurreikusi dira.

Iruñeko Ganbera Abesbatza

Iruñeko Ganbera Abesbatza 1946. urtean sortu zen, Luis Morondo Urra musikariak (Gares 1989-Iruña 1983) bultzatuta, eta hasieratik bere garaiko konpositoreekin lotu zen. Abesbatza sortzearekin Estatuan musika-munduan zegoen hutsunea bete zen, eta ohikoa zen Europako eszenatoki nagusietan eta jaialdi ospetsuenetan agertzea. Hasi zenetik, sari ugariaren merezidun izan zen nazioarteko abesbatza-lehiaketa garrantzitsuenetan (adibidez, Llangollen eta Lille), eta Urrezko Medaila bezalako sariak jaso zituen Lille, Argel, Vincennes bezalako hirietan eta Argentinako San Nicolás hirian, Meritu Zibilaren Ordenaren Golardoarekin, Alfontso X. Jakintsuaren Sariarekin eta Laneko Merituaren Urrezko Dominarekin batera.

Historian zehar, elkarrekin 4.500 kontzertutik gora eman ditu mundu osoan barrena. Saria emateko Foru Dekretuan nabarmentzen da Abesbatzak bere 72 urteko ibilaldian egin duen etengabeko lana eta erreferente kulturala izatea. "Denbora horretan zehar, modu koherentean eutsi die meritu ugariari, eta tartean nabarmentzekoak dira Nafarroako herritarrekiko konpromisoa; gure folklorea eta gure musika-identitatea bultzatzea eta zabaltzea ahots-musikan, gure mugen barnean eta kanpoan; musika garaikidearekiko konpromisoa, Nafarroako egileen dedikazio eta sustapen bereziarekin; eta euskararekiko konpromisoa", dekretuan jasotzen denaren arabera.

Vianako Printzea Saria

Kulturaren Vianako Printzea Saria Nafarroako Gobernuak sortu zuen 1990. urtean, kulturaren edozein arlotan, sormenaren, ikasketaren edo ikerketaren bidez edota sustapenaren bitartez pertsonek, taldeek edo instituzioek burututako lana saritzeko asmoarekin. Era berean, Sariak bereziki saritu nahi ditu kultur jardueraren edozein eremutan etengabeak izandako lanak eta ibilbide garrantzitsuak.

Saria urtero ematen da Nafarroako Kultura Kontseiluak proposatuta, eta aurreko edizioetan hauek izan dira sarituak: José Goñi Gaztambide (historialaria), Eugenio Asensio Barbarin (hispanista), Iruñeko Orfeoia, Rafael Moneo Vallés (arkitektoa), Francisco Ynduráin Hernández (filologoa), Julio Caro Baroja (antropologoa), Pablo Antoñana Chasco (idazlea), Pedro Miguel Echenique Landiribar (fisikaria), Montxo Armendáriz Barrios (zuzendari zinematografikoa), Álvaro d'Ors Pérez Peix (Erromatar Zuzenbideko katedraduna), Concepción María García Gaínza (Artearen Historiako katedraduna), Miguel Sánchez-Ostiz Gutiérrez (idazlea), María Bayo Jiménez (sopranoa), Juan José Aquerreta Maestu (pintorea), Fernando Redón Huici (arkitektoa), Javier Manterola Armisén (ingeniaria), Javier Tejada Palacios (zientzialaria), Pedro Iturralde Ochoa (musikaria), Alfredo Landa Areta (aktorea), Agustín González Acilu (konpositorea), Jürgen Untermann (hizkuntzalaria), Faustino Menéndez Pidal de Navascués (historialaria), Antonio López García (pintorea eta eskultorea), Daniel Innerarity Grau (filosofoa), Tarsicio de Azcona (historialaria), Ramón Andrés González-Cobo (musikologoa), Ignacio Aranguren Gallués (irakaslea eta antzerki-zuzendaria) eta José Lainez eta Concha Martínez (dantzariak eta koreografoak).

Galería de fotos



Uxue Barkos Lehendakaria hitzaldian.



David Gálvez eta Anne Miren Troyas saria eskertuz.



Teresa Catalán, laudatioa aurbeztuz.



Gobernuko eta nafarroako ordezkariak ekitaldian.



Uxue barkos Lehendakaria.



Abesbatza ekitaldian.



Ana herrera, David Gálvez, Anne Miren Troyas, Uxue Barkos, Ainhoa Aznárez eta Andoni Lacarra.